

6

Portaera asertiboaren hautematea

Ainhoa Lasa

EMUN kooperatibako hizkuntza zerbitzuetako aholkularia
ainhoa.lasa@emun.eus

Larraitz Madinabeitia

EMUN kooperatibako hizkuntza zerbitzuetako aholkularia
larra@emun.eus

Gemma Sanginés

Psikologoa eta euskararen gaietan profesionala. Valentziako Clínica Revisalud
info@gemmasangines.com

Sarrera-data: 2014-10-31/ Onartze-data: 2014-11-28

Laburpena. Hizkuntza-ohiturak ikuspegi soziolinguistikotik aztertu izan dira urteetan, eta ikerketa, artikulu zein eztabaida-arlo askotako hizketagai izan dira. Maila apalagoan bada ere, azken hamarkadan ohiturak, oro har, eta hizkuntza-ohiturak bereziki, psikologia-zientziaren aztergai izan dira. Lan honen bidez trebezia sozialen alderdi teorikoari heldu nahi zaio, eta bereziki bere adierazpen gorenari, portaera asertiboari. Horretarako, egoera minorizatuan dauden hiztunen errealitate soziolinguistikora ekarri nahi izan da portaera asertiboa. Herritarrek hizkuntza-portaera desberdinak nola hautematen dituzten aztertu nahi izan du ikerketak. • *Hitz-gakoak:* hizkuntza-ohiturak, asertibitatea.

Abstract. For years, language habits have been studied from the sociolinguistic perspective, and they have been the focus of many pieces of research, articles and spheres of discussion. Even if it has been on a more modest level, over the last decade habits in general and language habits in particular have been studied in psychology science. This paper sets out to deal with the theoretical aspect of social skills, and in particular their highest expression, assertive behaviour. For this purpose, there is a wish to bring the assertive behaviour to the sociolinguistic reality of speakers who are enduring a minority situation. The research has set out to explore how different language behaviours are perceived by citizens. • *Key words:* language habits, assertiveness.

ESKER ONAK

Bukatu dugu lana eta iritsi zaigu eskerrak emateko ordua.
Ezinbestean, atzera begira jarri gara, lana buruan genuen garaira. Ordutik hona dezente heldu eta gizendu zaigu lana.
Ezin ditugu aipatu gabe utzi bidelagun izan ditugun hainbat lagun, izan ere, euren laguntzarik gabe ezingo genuke gauzatu buruan geneukan hau. Beraz, eskerrik asko...
Joxpi Irastorza, gaian kokatzen laguntzeagatik
Ainhoa Garcia eta Amaia Revuelta, gure esketxetan parte hartzeagatik
Olatz Olaso, datuak ikusten eta aztertzen laguntzeagatik
Hèctor Monterde, datu esanguratsuak ezagutzeko aukera emateagatik
Ferran Suay, ondorioen testuak berrikusteagatik
Miren-Maite Aguirre, zure grafiko eder eta maketazio-lanengatik
Eskerrik asko, halaber, gure ikerketan parte hartu duten herritar guztiei.

1. SARRERA

I Hizkuntza-ohiturak ikuspegi soziolinguistikotik aztertu izan dira urteetan, eta ikerketa artikulu eta eztabaida arlo askotako hizketa-gai izan dira; eskura daude hizkuntza dominanteen, hizkuntza gutxituen eta gutxiagotuen azterlanak, erabileren lehentasunen gainekoak, ezaugarri sozio-demografikoek izan dezaketen eragina aztertzeoak, eta beste hainbat arlo kontuan hartzen dituztenak ere.

Psikologia arloan, ordea, minorizazioaren gaia gutxi ikertu da, baina azken hamarkadan ohiturak, oro har, eta hizkuntza-ohiturak bereziki, psikologia-zientziaren azterketa-gai izan dira. Herrialde Katalanetan eta Euskal Herrian, esaterako, hizkuntza-ohituren gaineko ikerketa eta interbentzioak bi talde-linguistikotan egin dira, euskaldunetan eta kataluniarrean, "hiztun minorizatuen hizkuntza-ohiturak hobetzeko" asmoz (Suay eta Sanginés, 2005).

Hizkuntza normalizatua duten herrietan, erabiliko den hizkuntza aukeratu behar izatea ez da ohiko portaera, baina bai hizkuntza minorizatua dutenetan. Hiztunak hautua egin behar izaten du elkarrizketa bakoitzean, interakzio bakoitzean erabiliko duen hizkuntzaren hautua. Horrek nekea dakar, eta hizkuntzari eusteko zailtasuna izaten da ondorioa. Aukeratu behar izate horri adituek estres linguistikoa¹ deitu diote.

Euskal hiztunak, nagusiki, solaskideak euskara ez dakienean edo ez dakiela iruditzen zaionean, gaztelaniara edo frantsesera jotzeko ohitura du, eta gainera modu sistematikoan egiten duela esan daiteke. Ferran Suay-k eta Gemma Sanginés-ek sortutako TELP (Taller d'espai

Hiztunak hautua egin behar izaten du elkarrizketa bakoitzean, interakzio bakoitzean erabiliko duen hizkuntzaren hautua. Horrek nekea dakar, eta hizkuntzari eusteko zailtasuna izaten da ondorioa. Aukeratu behar izate horri adituek estres linguistikoa deitu diote.

**Aldagai
disposizionalak
(sentimenduak,
jarrerak,
gaitasunak,
pentsabideak...)
hiztunen
portaeran eragin
zuzena izaten
dute, baina baita
dispositiboek
(egiturak,
antolabideak,
erakundeak...)
ere.**

lingüistic personal) tailerretan, portaera horien analisi psikologikoa egiten da, eta zerk eragiten dituen identifikatu. Egokitzen diren egoerak aldatu nahi direnean, sor daitezkeen parada deserosoei edo gatazkei aurre egiteko, baliabide pertsonalak garatzeko interbentziorako proposamen bat da.

Hizkuntza ohituretan eragiteko tailerretan ezinak, beldurrak, portaera estankatuak, portaera lotsatiak eta hainbat aurreiritzi ikusten dira, gehienetan antzekoak aurreiritziak eta antzekoak aldatzeko ezinen arrazoiak. Hizkuntza identitate-zeinu esanguratsua izanik, euskaldunek alde batera utzi ohi dute erdararen mesedetan.

Pertsonen nortasuna eraikitzen dute ingurunearekiko dituzten harremanetan (familia, harreman-taldeak, identifikazio-eta erreferentzia-taldeak e.a.) oinarrituz. Baina norbanakoaren ingurunean bere kolektibitatearen ezaugarri bereizleek (hizkuntza, adibidez) begirune gutxi jasotzen badute sistematikoki edo baztertu egiten badira, norbanakoa ezaugarri horiek baztertzera behartua sentitzen da, eta horrek egonezina eragiten dio. Onartzen badugu hizkuntza, komunikazio-bitartekoa ez ezik, nortasun adierazlea ere badela (Marí 1996; Adell 2003, in Ferran eta Sanginés, 2008) eta autoestimu maila egokia lortzeko, besteak beste, gure nortasunaren berri eman eta inolako konplexurik gabe agertzeko beharra dugula, nortasun-adierazpen hori etengabe baztertzen eta kontra jartzen bada, beste hizkuntza baten faboretan; oso zaila da, ezinezkoa ez bada, autoestimuari eustea. (Suay eta Sanginés, 2008)

Dena den, portaera hori ez da esparru eta egoera guztietan ematen, ez eta ausaz ere, uneko erreferentzia-taldearen hizkuntza-ohiturak, gaitasunak, hizkuntzarekiko duten balio multzoaren eta norbanakoaren jarreraren baitakoa izaten da.

Apodakaren esanetan, aldagai disposizionalak (sentimenduak, jarrerak, gaitasunak, pensabideak...) hiztunen portaeran eragin zuzena izaten dute, baina baita dispositiboek (egiturak, antolabideak, erakundeak...) ere. Hiztunek zentzua ikusi behar diote egoera desberdinetan euskaraz hitz egiteari.

Hizkuntza-praktika aldatzea ez da soilik kode bat aldatzea, jokaera aldatzea da eta horrekin batera kasu askotan "pertsonaren disposizioak" aldatzea. Bistan da, hizkuntza bat ikastea neurri batean ikasi duen lagun hura aldatzea da, baina zer esanik ez, mintzo hori erabiltzeko eta are gehiago norberaren ohiko inguruan erabiltzeko ikasi den kasuetan.

Hemen agerian utzi beharko genuke gure "hizkuntzari buruzko ideologia": testuinguru elebakarretan hazi eta hezi gaituzte, elebidunek anomalia gisa bizi

behar izan dute euren dibergentzia, hizkuntzak ikastea orain dela gutxira arte oso esperientzia minoritarioa izan da eta gainera norma eta normaltzat jo dugu herri edo gizarte bat hizkuntza (nazional-kanoniko) batekin identifikatzea. Ideologia hori ez da soilik “diskurtso” bat, alderantziz, estatuak eta estatu-aparatuak ondo ahalegindu dira esperientzia naturala hura izan zedin: elebakartasun kanonikoa. Hitz gutxitan, hizkuntzari dagokionez, habitus kanoniko, nazional eta orokorra ezarri nahi izan dute “sozietate modernoek”. (Apodaka, 2013).

Hiztunak aldaketa egingo badu, bere jarreraren aldaketa bat edo dispositiboan aldaketa bat egon delako izango da, baita arrakastarako aukerak ikusten dituelako, erdaraz jarraitzeak zentzua galtzen duelako edo motibazio-estimulua handia delako. Azturak aldatuko baditu, ondorio positiboak aurreikusten dituelako izango da.

Portaerak jaiotzetik ikasten dira, askotariko portaerak, baita hizkuntza portaera ere. Bandura-ren (1977) ustez, giza portaera gehiena behaketatik ikasten da. Are gehiago, behaketaren bidez, gainontzekoek azaldutako eta erakutsitako informazioaren bidez, gizakiek ezagupenak eta gaitasunak areagotu ditzakete.

Ikaste prozesu horrek, behatzeaz gain, esperimentatzea dakar, eta nagusiki imitazio bidez egiten du gizakiak; beti ere, ikasteko erreferentziazkoak izan direnei jarraiki, “bizitza errealeko ereduak edo eredu sinbolikoak azaltzen dituzten jarrerak eta erantzunak errepikatzeko joera” izango du (Bandura, Walters, 1963). Edozein modutan ere, portaerak askotarikoak izango dira, ez beti berdinak, eta, lehen esan bezala, arrakastarako aukeren baitan eta norberaren jarreraren baitan modelatu egingo ditu hiztunak.

Behaketa eta imitazioaz gain, adimena edo adimen gaitasuna, ezinbestean, munduarekiko hartu-emanari esker garatzen da; garapen horretan, norbanakoa eta ingurukoekiko harremana (subjektuartekotasuna) erabat lotuta daude, bateragarriak dira. Bestearen presentzia eta errealitatea uste baino hurbilago daude, eta gure jarreraren parte eraikitzailea dira.

Varelaren (2000) esanetan, esperientzia sozialek jarrera garatzen laguntzen dute; balizko egoera sozialetan zehaztapenez jokatu ahal izateko prestaketa ematen dute. Esperientziok interpretatzen ikasteko balio dute (hautematearen azken fasea), aurrez jasotako estimulua sailkatu eta antolatu ondoren, zentzua ematen saiatzeko. Interpretazioa norbanakoaren aurretiazko esperientziaren, motibazioaren, interesen eta besteekiko hartu-emanen baitakoa izango da beti. Horregatik, estimulu horiek interpretatzean aldaketak egon daitezke, esperientzia berriez elikatu izanagatik edo norbanakoaren interesak aldatu egin direlako.

**Hiztunak
aldaketa egingo
badu, bere
jarreraren aldaketa
bat edo
dispositiboan
aldaketa bat
egon delako
izango da, baita
arrakastarako
aukerak ikusten
dituelako,
erdaraz
jarraitzeak
zentzua galtzen
duelako edo
motibazio-
estimulua handia
delako. Azturak
aldatuko baditu,
ondorio
positiboak
aurreikusten
dituelako izango
da.**

Hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza portaerak berreskuratzeko, ezinbestean, autoestimu kolektiboa berreskuratu behar da. Zaila da hizkuntza bat erabiltzearen alde egotea hizkuntza-komunitate hori ez badago nahikoa baloratua.

Ikasketa prozesu horretatik guztitik jarrerak eraikitzen dira, nahiz eta gero portaera desberdinak erakutsi; izan ere, hartu-emanetan, pertsona gehienek dute inguruan arauzkoa den portaerarekin bat egiteko beharra, eta portaerak egoeretara egokitzen ere ikasten da.

Euskal Herrian nagusitzen den hizkuntza portaeraren atzetik arrazoi historiko, politiko eta sozialak ikus daitezke: hizkuntzaren zapalkuntza historikoa, norberaren hizkuntza erabiltzeagatik jasandako zigorrak, hizkuntzaren prestigio eza... Euskara hizkuntza gutxiagotua da eta izan da eta urte askoan baztertua izan da eta euskal hiztuna zigortua. Kontrako baldintza sozial eta legalek gogor kaltetu dute euskararen prestigio soziala eta egun erdal hiztunen aurrean hitz egitea edukazio txarrekoa edo baztertua dela pentsatzen edota sentitzen dute euskaldun zein erdaldunek. Zigor sistematikoa jaso duen portaera batek gertatzeko probabilitate txikiagoa izango duela kontuan izanik, ez da harrizkoa euskal hiztunek hizkuntza propioaren kaltetan eta hegemonikoaren mesedetan, euskaraz ez hitz egitea.

Joan i Marí-k (2012) esaten duen legez, hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza portaerak berreskuratzeko, ezinbestean, autoestimu kolektiboa berreskuratu behar da. Zaila da hizkuntza bat erabiltzearen alde egotea hizkuntza-komunitate hori ez badago nahikoa baloratua. Eta, era berean, zaila da autoestimua berreskuratzea lehenago ez bagara autozentratzen.

Autozentratzeaz ari garenean, zertaz ari gara? Bere burua satelizatua, mediatizatua eta beste giza komunitate baten ikusmiratik ulertua izan den giza komunitatea bere perspektiba propio jakinetik ikusten denean autozentratua dagoela esan dezakegu (...) Autozentratze prozesua autoestimua beraren berreskuratzearekin batera ematen da. (Joan i Marí, 2012).

Azken urteotan ezagutzak aurrerapauso handiak eman baditu ere, ezagutza handia dagoen lekuetan zein ezagutza xumeagoa dagoenetan, erabilerak nekez egiten du aurrera, ez da euskararen erabileraren aldeko portaeran islatu. Badirudi, hala ere, egoeraren arabera edo taldearen baitan, aldatu egiten dela jokaera, batzuetan euskara gehiago eta besteetan gutxiago erabiliz.

Hartu-emanetan portaerak pasiboak, oldarkorrak edo asertiboak izan daitezke:

- Portaera pasiboa: sarri, nork bere buruarekiko konfiantza faltaren eta bestea norbera baino garrantzitsuagotzat hartzearen ondorioz gertatzen da. Zailtasunen aurrean erdararen alde egitea.

- Portaera oldarkorra: ezaugarri nagusia iritziak era oldarkorren adieraztea da, besteak errespetatu gabe, ondokoa gutxien eta bestea menperatzeko nahiarekin. Euskararen alde egitea solaskidea kontuan hartu gabe.
- Portaera asertiboa: portaera asertiboa erakusteak esan nahi du esaten jakitea, ezetz esaten, negoziatzen... eta malgua izaten nahi dena lortzeko, besteen eskubideak errespetatuaz eta gure sentimenduak era argian adieraziz. Euskararen alde egitea, eta zailtasunen aurrean, solaskidea errespetatuz, konponbideak proposatzea.

Güell eta Muñoz-en (2000, in Naranjo, 2008) arabera, portaera asertiboa erabiltzen duten pertsonak ez dute uzten besteek manipuladizaten eta pertsonarteko harremanetan libreagoak izan ohi dira, autoestimu handiagoa izan ohi dutelako, baita autokontrol emozionalerako gaitasun handiagoa eta besteekiko errespetu handiko jarrera ere. Ideiak eta erreklamazioak gizalegez adierazteko trebezia dute eta besteek adierazten dituzten ideiak edo erreklamazioak errespetuz entzuten dituzte. Asertibitatearen oinarria benetako nia baieztatzea da; ez besteak manipulatzeko ni imaginario bat asmatzea (Neidherat, Weinstein eta Conry, 1989, in Naranjo, 2008); Joan i Mari-k zioen moduan, autozentratzea.

Portaera asertiboa muturreko bi portaeren arteko bitarteko puntu bat da; erasokortasuna eta pasibotasunaren artean kokatzen den portaera, hain zuzen ere.

1. irudia. Portaera pasiboa, asertiboa eta oldarkorra



Ikerketa honen bidez, hizkuntza ohituren gaineko hausnarketa saioetan proposatzen, lantzen eta entrenatzen diren hizkuntza-portaera asertiboak gipuzkoarren begietara duen onarpena ezagutu nahi izan da. Izan ere, ezinbestekoa da euskal hiztunek egokitzen zaizkien egoera anitzen aurrean baliabideak izatea beren nortasunari eusteko, autoestimuari eusteko eta, hiztun komunitate moduan indartuko badira, beste pertsona batzuentzat ereduagarri izateko.

Hizkuntza portaera asertiboa izatea hiztun bakoitzaren ongizatean lagungarri izan daiteke, eta hiztun aske, osasuntsu eta osoa izateko

Portaera asertiboa: portaera asertiboa erakusteak esan nahi du esaten jakitea, ezetz esaten, negoziatzen... eta malgua izaten nahi dena lortzeko, besteen eskubideak errespetatuaz eta gure sentimenduak era argian adieraziz. Euskararen alde egitea, eta zailtasunen aurrean, solaskidea errespetatuz, konponbideak proposatzea.

Ezinbestekoa da euskal hiztunek egokitzen zaizkien egoera anitzen aurrean baliabideak izatea beren nortasunari eusteko, autoestimuari eusteko eta, hiztun komunitate moduan indartuko badira, beste pertsona batzuentzat eredugarri izateko.

aukerak areagotuko lituzke. Hizkuntzaren erabileran eragiteko laguntza ezinbestekoa ere izan daiteke.

Horregatik guztiagatik, ondoko bi hipotesi hauek betetzen diren jakin nahi izan da lan honetan:

- Hizkuntza portaera asertiboak onarpen handiagoa du hizkuntza portaera pasibo edo oldarkorrek baino.
- Euskaraz gai den behatzaileak hobeto baloratzen du portaera asertiboa euskaraz ezgai den behatzaileak baino.

2. METODOLOGIA

I 2.1 Ikerketaren diseinua

Ikerketa honetan, helburu nagusia portaera jakin batek hiztunengan, komunitate batengan edo giza talde batengan izan dezakeen eragina, onarpena eta hedapena aztertzea denez, metodo kuantitatiboa erabili da, maiztasunak nola banatzen diren eta elkarren artean nolako harremana daukaten elkarren artean ikusi ahal izateko.

Gizartean ezagun diren portaera pasibo, oldarkor eta asertiboak nola hautematen diren jakiteko, Likert galdetegi bat erabili da; berehalako erantzun azkarrak jasotzea ahalbidetu du eta portaera jakin batzuek deskribatzen dituzten adjektiboekiko adostasun maila neurtzeko bidea eskaini du.

Kasu honetan, portaera asertiboari positiboki, negatiboki edo era neutroan lotzen zaizkion adjektiboak aukeratu dira eta inkestatuari bere iritziarekin bat datorren erantzun-kategoria hautatzeko eskatu zaio. Erantzunetarako bost kategoria erabili dira: erabat, asko, nahiko, gutxi eta oso gutxi.

2.2 Lagina

Herritar askotarikoen iritziak jaso nahi izan dira (euskaraz gai direnak eta ezgai direnak, hirian zein herrian bizi direnak, adin askotariko herritarrak, ikasketa maila desberdinekoak...); horrenbestez, 18 urtetik gorako herritarrak ausaz aukeratu dira.

Lagin tipologia zabala hobeto ordezkatu zuen eremuan egiteko asmoz, landa-lana Donostiako guneko eta jendetsuetan egin da: Alde Zaharra, Kursaal, Kontxa Pasealekua, Alderdi Eder eta Bulebarreko ibilbidean. 2013ko ekaineko asteburu batean egin zen eta guztira 94 laguneko lagina osatu zen.

2.3 Prozedura

Ikerketa lan honetan 3 portaera nagusiak erakusteko esketx batzuk grabatu dira. Esketx horiek ikusi ahal, elkarrizketatuari, horretarako berariak sortutako Likert eskala betez, eszena bakoitzaren balorazioa egiteko eskatu zaio.

Bukaeran, datu pertsonalak jasotzeko fitxa bat banatu eta betetzeko eskatu zaie, ondoren norbanakoen aldagaien baitako konparazioak egin ahal izateko.

Bestalde, jendearengana hurbiltzeko orduan guztiei azalpen bera ematea ezinbestekoa zen eta ahalik eta informazio gutxien eman zitzaientzen, zer aztertu nahi zen agerian ez uzteko.

Horra erabilitako azalpena:

Ikasketa amaierako ikerketa lana egiten ari gara, eta komunikazioa aztertzen ari gara. Eskatzen dizuegu galdetegian jasotako adjektiboak, ikusten dituzuen esketxetan, zein puntura arte betetzen diren baloratzea.

Jakinda euskaldunen ohiko portaera pasiboa izaten dela, kale-aztertzaileak hizkuntza-portaera sumiso batekin hurbildu ziren. Galdetuak euskaraz erantzunez gero, euskaraz eman zen azalpen osoa; baina gaztelaniaz erantzunez gero, gaztelaniaz. Galdetegiak ere bi erataraz josi ziren; batzuetan euskara lehenetsita, eta besteetan gaztelania. Biak bi hizkuntzatan.

2.4 Ikerketan erabilitako baliabideak

Esketxak:

Esketxetan euskaraz gai direnek eta ezgai direnek ulertzeko moduko gidioa erabili da, ulermena bermatuko zuen moduko egoera bat, komunikazioa arazoa izan ez zedin.

Halaber, pertsona neutroak aukeratu dira aktore lanetarako, eta horretarako kontuan hartu dira sexua, adina eta itxura. Hori dela-eta, 35-40 urte arteko 2 emakume izan dira hiru eszenetako protagonistak, beharbada, gizonezkoa eta emakumezkoa aukeratuta, egoera jakin batzuetan, oharkabean, ez liratekeelako maila berean baloratuko, eta bilatzen zen hizkuntzarekiko hautematean generoaren aldagaiak eragina izango zukeelako.

Esketxerako, ohikoa den egoera neutroa eta berdinen artekoa erabili da, aztertzaileen ustez, eguneroko errealitatera gehiago hurbiltzen delako: kalean ezezagunen arteko elkarrizketa (galdera-erantzuna) labur bat.

Egoera: Emakume bat kotxetik irten da eta kaleko emakume ezezagun bati zerbait galdetu dio.

Gizartean ezagun diren portaera pasibo, oldarkor eta asertiboak nola hautematen diren jakiteko, Likert galdetegi bat erabili da; berehalako erantzun azkarrak jasotzea ahalbidetu du eta portaera jakin batzuek deskribatzen dituzten adjektiboekiko adostasun maila neurtzeko bidea eskaini du.

1. ESZENA: PORTAERA PASIBOA

Eusk: -Barkatu, non dago Morlans kalea?

Erd.: -Eh? (aurpegi neutroa)

Eusk: -¿la calle Morlans?

2. ESZENA: OLDARKORRA

Eusk: -Barkatu, non dago Morlans kalea?

Erd.: -Eh? (aurpegi neutroa)

Eusk: -Ya os vale... Ya estoy harta de gente como tú, a ver cuándo aprendéis euskera.

3. ESZENA:ASERTIBOA

Eusk: -Barkatu, non dago Morlans kalea?

Erd.: -Eh? (aurpegi neutroa)

Eusk: -Morlans kalea, Morlans? (moteltxoago baina ez oso, errepikatuz eta begietara begira, ahoan irribarre txiki bat).

Inkestak

Galdesorta diseinatu da; bertan adjektibo batzuk zerrendatu dira (batzuk positiboak, negatiboak besteak) eta Likert-en eskalan adostasun-maila azaltzeko graduatzaileak jarri dira segidan. Adierazleak aukeratzean, adjektibo batzuk antzekoak direla jakin arren, mantendu egin dira, erantzun koherenteak ematen ziren ikusi ahal izateko:

ADJEKTIBO POSITIBOAK

- | | |
|--------------------|--------------------|
| • laguntzailea | • facilitadora |
| • egokia | • adecuada |
| • integratzailea | • integradora |
| • seduzitzailea | • seductora |
| • errespetuzkoa | • respetuosa |
| • elkar ulertzekoa | • de entendimiento |

ADJEKTIBO NEGATIBOAK

- | | |
|-----------------|------------|
| • zapaltzailea | • opresora |
| • Inposatzailea | • Impone |
| • erradikala | • radical |

• blokeatuta	• bloqueada
• otzana (pasiboa)	• pasiva
• oldarkorra (agresiboa)	• agresiva
• gutxiestekoa (baztertzaila)	• desprecia
ADJEKTIBO NEUTROA	
• neutroa	• neutra


Adierazle guzti horiek kontrastatzeko, aurrez zenbait proba egin dira talde pilotu batean bakoitzean, adjektibo bakoitzarekin zer ulertzen zen jakiteko, eta horren arabera, egokitzapenak egiteko. Hala ere, landa-lana egiterakoan, ez zen adjektiboen gaineko azalpenik eman, interpretazioa librea izan zen.

3. EMAITZAK

3.1 Portaeraren hautemate orokorra


Portaeren hautematea

1. grafikoa. Portaera pasiboa




Portaera asertiboak onarpen handiagoa du. Parte hartzaileek positiboagoztat jotzen dute portaera asertiboa erakusten duen esketxa, eta oldarkorrak, adostasun maila altuarekin, ia ez dauka onarpenik.

2. grafikoa. Portaera oldarkorra



3. grafikoa. Portaera asertiboa




3 grafikoa orokor horietan, zenbait desberdintasun ikus daitezke. Oro har, portaera oldarkorra eta beste bi portaeren (pasiboa eta asertiboa) artean desberdintasun handiak ikus daitezke.

Portaera asertiboak onarpen handiagoa du. Parte hartzaileek positiboagoztat jotzen dute portaera asertiboa erakusten duen esketxa, eta oldarkorrak, adostasun maila altuarekin, ia ez dauka onarpenik.







Positiboago baloratu dituzte 1. eta 3. eszenak (pasiboa eta asertiboa, hurrenez hurren) 2. eszena (oldarkorra) baino. Balio positibo handiagoak esan nahi du adjektibo positiboek (laguntzailea, egokia, errespetuzkoa e.a.) eta neutroak puntuazio altuagoa jaso dutela eta negatiboek (zapatzailea, erradikala, oldarkorra e.a.) baxuagoa.

Adjektiboen hautematea


4. grafikoa. Adjektibo positiboak



5. grafikoa. Adjektibo negatiboak



6. grafikoa. Adjektibo neutroa



Portaeren hautematea: eszenen alderaketa estatistikoa

1. taula. Adjektibo positiboak – 1-2 eszenen konparaketa

ADJEKTIBO ALDAGAIA	ESZENA TALDEA 1-2	N	BATEZ BESTEKOAK	t balioa	g.l.	ESANGURA
LAGUNTZAILEA	1	93	2,67	10,193	92	p≤0,0009
	2	93	1,30			
EGOKIA	1	91	2,74	8,527	90	p≤0,0009
	2	91	1,40			
INTEGRATZAILEA	1	91	2,43	7,479	90	p≤0,0009
	2	91	1,34			
SEDUZITZAILEA	1	93	1,47	4,002	92	p≤0,0009
	2	93	1,16			
ERRESPEITUZKOA	1	92	2,92	11,954	91	p≤0,0009
	2	92	1,30			
ELKAR ULERTZEKOAK	1	89	3,01	10,075	88	p≤0,0009
	2	89	1,48			

N: laginaren subjektu-kopurua

T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena

g. l.: libere-tate-gradu

Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik p≤0,06 denean.

2. taula. Adjektibo negatiboak – 1-2 eszenen konparaketa

ADJEKTIBO	ESZENA TALDEA 1-2	N	BATEZ BESTEKOAK	t balioa	g.l.	ESANGURA
ZAPALTZAILEA	1	92	1,8	-12,252	91	p≤0,0009
	2	92	3,83			
INPOSATZAILEA	1	91	2,14	-10,586	90	p≤0,0009
	2	91	3,92			
ERRADIKALA	1	92	1,99	-13,375	91	p≤0,0009
	2	92	4,05			
BLOKEATUTA	1	91	2,23	2,116	90	--
	2	91	1,86			
OTZANA (PASIBOA)	1	88	2,23	3,468	87	p= 0,001
	2	88	1,6			
OLDARKORRA (AGRESIBOA)	1	90	1,82	-13,842	89	p≤0,0009
	2	90	4,13			
GUTXISTEKOAK (BAZTERTZAILEA)	1	91	1,97	-11,415	90	p≤0,0009
	2	91	3,89			

N: laginaren subjektu-kopurua

T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena

g. l.: libere-tate-gradu

Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik p≤0,06 denean.

3. taula. Adjektibo neutroa – 1-2 eszenen konparaketa

ADJEKTIBOA	ESZENA TALDEA 1-2	N	BATEZ BESTEKOA	t balioa	g.l.	ESANGURA
NEUTROA	1	91	2,46	8,405	90	p≤0,0009
	2	91	1,38			

N: laginaren subjektu-kopurua

T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena

g. l.: libertate-gradu

Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik p≤0,06 denean.

4. taula. Adjektibo positiboak / 2-3 eszenen konparaketa

ADJEKTIBOA ALDAGAIA	ESZENA TALDEA 2-3	N	BATEZ BESTEKOA	t balioa	g.l.	ESANGURA
LAGUNTZAILEA	2	92	1,30	-9,943	91	p≤0,0009
	3	92	2,84			
EGOKIA	2	90	1,38	-10,238	89	p≤0,0009
	3	90	3,11			
INTEGRATZAILEA	2	91	1,36	-8,633	90	p≤0,0009
	3	91	2,88			
SEDUZITZAILEA	2	91	1,16	-7,450	90	p≤0,0009
	3	91	2,35			
ERRESPETUZKOA	2	91	1,31	-11,883	90	p≤0,0009
	3	91	3,31			
ELKAR ULERTZEKOA	2	93	1,52	-8,343	92	p≤0,0009
	3	93	2,97			

N: laginaren subjektu-kopurua

T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena

g. l.: libertate-gradu

Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik p≤0,06 denean.

5. taula Adjektibo negatiboak / 2-3 eszenen konparaketa

ADJEKTIBOA	ESZENA TALDEA 2-3	N	BATEZ BESTEKOA	t balioa	g.l.	ESANGURA
ZAPALTZAILEA	2	92	3,82	11,593	91	p≤0,0009
	3	92	1,73			
INPOSATZAILEA	2	91	3,93	1,337	90	p≤0,0009
	3	91	1,98			
ERRADIKALA	2	91	4,02	9,603	90	p≤0,0009
	3	91	2,1			
BLOKEATUTA	2	92	1,87	-770	91	--
	3	92	1,99			
OTZANA (PASIBOA)	2	90	1,6	-2,915	89	p= 0,005
	3	90	2,04			
OLDARKORRA (AGRESIBOA)	2	90	4,13	15,167	89	p≤0,0009
	3	90	1,52			
GUTXIESTEKOA (BAZTERTZAILEA)	2	89	3,87	11,359	88	p≤0,0009
	3	89	1,82			

N: laginaren subjektu-kopurua

T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena

g. l.: libertate-gradu

Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik p≤0,06 denean.

6. taula Adjektibo neutroa – 2-3 eszenen konparaketa

ADJEKTIBOIA	ESZENA TALDEA 2-3	N	BATEZ BESTEKOIA	t balioa	g.l.	ESANGURA
NEUTROA	2	91	1,38	-8,19	90	p≤0,0009
	3	91	2,52			

N: laginaren subjektu-kopurua
 T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentzietan dagokiena
 g. l.: libere-tate-gradu
 Oharra: p-ren balioak esanguratsua-ik izango dira bakarririk p≤0,06 denean.

7. taula Adjektibo positiboak / 1-3 eszenen konparaketa

ADJEKTIBOIA ALDAGAI A	ESZENA TALDEA 1-3	N	BATEZ BESTEKOIA	t balioa	g.l.	ESANGURA
LAGUNTZAILEA	1	92	2,68	-0,783	91	--
	3	92	2,84			
EGOKIA	1	90	2,77	-1,944	89	p=0,055*
	3	90	3,13			
INTEGRATZAILEA	1	91	2,45	-2,189	90	p=0,031
	3	91	2,87			
SEDUZITZAILEA	1	91	1,44	-5,549	90	p≤0,0009
	3	91	2,35			
ERRESPE T UZKOA	1	92	2,93	-2,023	91	p=0,046
	3	92	3,3			
ELKAR ULERTZEKOA	1	89	3,04	0,417	88	--
	3	89	2,97			

N: laginaren subjektu-kopurua
 T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentzietan dagokiena
 g. l.: libere-tate-gradu
 Oharra: p-ren balioak esanguratsua-ik izango dira bakarririk p≤0,06 denean.

8. taula Adjektibo negatiboak / 1-3 eszenen konparaketa

ADJEKTIBOIA	ESZENA TALDEA 1-3	N	BATEZ BESTEKOIA	t balioa	g.l.	ESANGURA
ZAPALTZAILEA	1	91	1,80	0,408	90	--
	3	91	1,74			
INPOSATZAILEA	1	89	2,16	1,077	88	--
	3	89	1,96			
ERRADIKALA	1	90	1,97	-0,74	89	--
	3	90	2,11			
BLOKEATUTA	1	90	2,22	1,237	89	--
	3	90	1,98			
OTZANA (PASIBO A)	1	89	2,24	1,275	89	--
	3	89	1,99			
OLDARKORRA (AGRESIBO A)	1	91	1,79	1,935	90	0,06*
	3	91	1,51			
GUTXIESTEKO A (BAZTERTZAILEA)	1	90	1,93	0,684	89	--
	3	90	1,81			

N: laginaren subjektu-kopurua
 T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentzietan dagokiena
 g. l.: libere-tate-gradu
 Oharra: p-ren balioak esanguratsua-ik izango dira bakarririk p≤0,06 denean.

9. taula Adjektibo neutroa/ 1-3 eszenen konparaketa

ADJEKTIBOA	ESZENA TALDEA 1-3	N	BATEZ BESTEKOAK	t balioa	g.l.	ESANGURA
NEUTROA	1	90	2,48	-2,75	89	--
	3	90	2,52			

N: laginaren subjektu-kopurua

T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena

g. l.: libere-gradu

Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik $p \leq 0,06$ denean.

Adjektibo guztietan dago estatistikoki alde esanguratsua, bai 1.- 2. eszenen eta baita 2.-3. eszenen alderaketetan ere, beti ere, 1. eta 3. eszenen alde.


1.- 3. eszenen alderaketan, ordea, 3.a balio positiboagoekin lotzen dela ikus daiteke; alegia, portaera asertiboak onarpen handiagoa duela ikus daiteke; bereziki esanguratsuak dira integratzailea, seduzitzailea eta errespetuzkoa.

2. eszenari dagokionez, portaera oldarkorra ez da gehien gustukoa, eta, gainera, besteen aldean argi ikus daiteke askoz adostasun handiagoa dutela baloratzerakoan. Are gehiago, elkarrizketatu batzuek esan dute ez dutela erreala ikusten. Bitxia da, 2. eszena (oldarkorra) baloratzean gisa honetako aipamenak entzun dira: “hau ez da erreala”; “hau ez da inoiz gertatzen”, “ze sutila” (modu ironikoan), “bai zera”, e.a. Hitez esandakoak 8 izan dira eta; beste hainbatetan keinu ironikoa edo irribarrea erakutsi dute, baina datu horiek ez dira jaso, interpretazio okerrik ez egiteko.

3.2 Euskaraz gai²/ezgai³ diren behatzaileen hautematea


Laginaren argazkia

7. grafikoa. Laginaren euskara gaitasuna




Portaera asertiboaren hautematea

8. grafikoa. Portaera asertiboa: euskaraz gai direnen hautematea



9. grafikoa. Portaera asertiboa: ezgai direnen hautematea



Euskaraz gai direnek hobeto baloratu dute hizkuntza-portaera asertiboa, ezgai direnek baino.


Adjektibo positiboetara eta neutroari dagokienez, euskaraz gai direnek positiboago baloratu dituzte ezgai direnek baino.

Euskaraz gai direnek hobeto baloratu dute hizkuntza-portaera asertiboa, ezgai direnek baino.


Adjektibo positiboetara eta neutroari dagokienez, euskaraz gai direnek positiboago baloratu dituzte ezgai direnek baino.

Adjektiboen hautematea


10. grafikoa. Adjektibo positiboak



11. grafikoa. Adjektibo negatiboak



12. grafikoa. Adjektibo neutroa



Portaera asertiboaren hautematea: euskaraz gai/ezgai diren behatzaileen hautematearen alderaketa estatistikoa

10. taula. 1. Eszena: adjektibo positiboak – euskaraz ezgai/euskaraz gai konparaketa

ADJEKTIBOA ALDAGAIA	ezgai / gai	N	BATEZ BESTEKOA	d.t.	t balioa	g.l.	ESANGURA
LAGUNTZAILEA	ezgai	18	2,83	1,2	1,274	25,716	--
	gai	74	2,38	1,0			
EGOKIA	ezgai	18	3,17	1,4	1,472	22,940	--
	gai	74	2,65	1,1			
INTEGRATZAILEA	ezgai	18	2,78	1,4	1,184	21,639	--
	gai	74	2,35	1,1			
SEDUZITZAILEA	ezgai	18	1,44	0,9	-0,144	21,865	--
	gai	75	1,48	0,7			
ERRESPEITUZKOA	ezgai	18	3,11	1,1	0,777	25,908	--
	gai	75	2,88	1,1			
ELKAR ULERTZEKOA	ezgai	17	2,94	1,1	-0,289	26,204	--
	gai	72	3,03	1,2			

N: laginaren subjektu-kopurua
d.t.: desbideratze estandarra
T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena
g. l.: libereate-gradu
Oharra: p-ren balioak esanguratsuk izango dira bakarrik $p \leq 0,06$ denean.

11. taula. 1. Eszena: adjektibo negatiboak – euskaraz ezgai/euskaraz gai konparaketa

ADJEKTIBOA ALDAGAIA	ezgai / gai	N	BATEZ BESTEKOA	d.t.	t balioa	g.l.	ESANGURA
ZAPALTAILEA	ezgai	18	1,56	0,6	-1,614	45,804	--
	gai	74	1,86	1,1			
INPOSATZAILEA	ezgai	17	2,06	1,1	-0,341	27,234	--
	gai	74	2,16	1,3			
ERRADIKALA	ezgai	18	1,61	0,9	-1,961	33,386	p= 0,058
	gai	74	2,08	1,1			
BLOKEATUTA	ezgai	18	1,83	1,4	-1,406	23,060	--
	gai	73	2,33	1,1			
OTZANA (PASIBOA)	ezgai	18	2,28	2	0,14	19,886	--
	gai	72	2,21	1,2			
OLDARKORRA (AGRESIBOA)	ezgai	18	1,61	0,9	-1,005	30,823	--
	gai	74	1,86	1,1			
GUTXIESTEKOA (BAZTERTZAILEA)	ezgai	18	1,33	0,5	-4,271	70,125	P< 0,0001
	gai	74	2,11	1,2			

N: laginaren subjektu-kopurua
d.t.: desbideratze estandarra
T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena
g. l.: libereate-gradu
Oharra: p-ren balioak esanguratsuk izango dira bakarrik $p \leq 0,06$ denean.

12. taula 1. Eszena: Adjektibo neutroa – euskaraz ezgai/euskaraz gai konparaketa

ADJEKTIBOA ALDAGAIA	ezgai / gai	N	BATEZ BESTEKOA	d.t.	t balioa	g.l.	ESANGURA
NEUTROA	ezgai	18	2,83	1,2	1,487	23,105	--
	gai	74	2,38	1			

N: laginaren subjektu-kopurua
d.t.: desbideratze estandarra
T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena
g. l.: libartate-gradu
Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik $p \leq 0,06$ denean.

13. taula 2. Eszena: adjektibo positiboak – euskaraz ezgai/euskaraz gai konparaketa

ADJEKTIBOA ALDAGAIA	ezgai / gai	N	BATEZ BESTEKOA	d.t.	t balioa	g.l.	ESANGURA
LAGUNTZAILEA	ezgai	18	1,44	1,3	0,571	18,518	--
	gai	75	1,27	0,6			
EGOKIA	ezgai	18	1,33	0,6	-0,422	35,719	--
	gai	74	1,41	0,8			
INTEGRATZAILEA	ezgai	18	1,39	1	0,144	21,957	--
	gai	74	1,35	0,8			
SEDUZITZAILEA	ezgai	18	1,28	1	0,621	19,045	--
	gai	75	1,13	0,5			
ERRESPEZUKOIA	ezgai	18	1,5	1	0,955	19,579	--
	gai	74	1,26	0,6			
ELKAR ULERTZEKOIA	ezgai	18	1,67	1,1	0,627	23,022	--
	gai	75	1,49	0,9			

N: laginaren subjektu-kopurua
d.t.: desbideratze estandarra
T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena
g. l.: libartate-gradu
Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik $p \leq 0,06$ denean.

14. taula 2. Eszena: adjektibo negatiboak – euskaraz ezgai/euskaraz gai konparaketa

ADJEKTIBOA ALDAGAIA	ezgai / gai	N	BATEZ BESTEKOA	d.t.	t balioa	g.l.	ESANGURA
ZAPALTZAILEA	ezgai	18	3,67	1,4	-0,524	24,74	--
	gai	75	3,85	1,3			
INPOSATZAILEA	ezgai	18	4,17	1,1	1,055	28,77	--
	gai	75	3,85	1,3			
ERRADIKALA	ezgai	18	3,94	1,6	-0,377	22,92	--
	gai	75	4,09	1,3			
BLOKEATUTA	ezgai	18	2,11	1,6	0,789	21,99	--
	gai	75	1,8	1,2			
OTZANA (PASIBOIA)	ezgai	17	1,71	1,4	0,238	21,384	--
	gai	74	1,62	1,6			
OLDARKORRA (AGRESIBOIA)	ezgai	18	4	1,5	-0,479	23,209	--
	gai	73	4,18	1,2			
GUTXIESTEKOIA (BAZTERTZAILEA)	ezgai	18	3,5	1,5	-1,282	24,47	--
	gai	73	3,99	1,3			

N: laginaren subjektu-kopurua
d.t.: desbideratze estandarra
T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentziei dagokiena
g. l.: libartate-gradu
Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik $p \leq 0,06$ denean.

15. taula 2. Eszena: Adjektibo neutroa – euskaraz ezgai/euskaraz gai konparaketa

ADJEKTIBO ALDAGAIA	ezgai / gai	N	BATEZ BESTEKOA	d.t.	t balioa	g.l.	ESANGURA
NEUTROA	ezgai gai	18 75	1,88 1,27	1,4 0,7	1,750	17,952	

N: laginaren subjektu-kopurua
d.t.: desbideratze estandarra
T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentzietan dagokiena
g. l.: libere-tate-gradu
Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik $p \leq 0,06$ denean.

Bigarren hipotesia ere berretsi egin da: gai subjektuek hobeto baloratu dute portaera asertiboa ezgaiek baino.

16. taula 3. Eszena: adjektibo positiboak – euskaraz ezgai/euskaraz gai konparaketa

ADJEKTIBO ALDAGAIA	ezgai / gai	N	BATEZ BESTEKOA	d.t.	t balioa	g.l.	ESANGURA
LAGUNTZAILEA	ezgai gai	18 74	2,11 3,01	1,2 1,2	-2,798	25,603	$p = 0,010$
EGOKIA	ezgai gai	18 73	2,56 3,27	1,4 1,3	-2,009	24,516	$p = 0,056$
INTEGRATZAILEA	ezgai gai	18 74	2,39 2,97	1,4 1,3	-1,623	25,331	--
SEDUZITZAILEA	ezgai gai	18 73	1,72 2,51	1,2 1,4	-2,435	29,945	$p = 0,021$
ERRESPETUZKOA	ezgai gai	18 74	2,61 3,47	1,3 1,3	-2,479	25,082	$p = 0,020$
ELKAR ULERTZEKOA	ezgai gai	18 74	2,22 3,19	1,1 1,3	-3,185	29,58	$p = 0,003$

17. taula 3. Eszena: adjektibo negatiboak – euskaraz ezgai/euskaraz gai konparaketa

ADJEKTIBO ALDAGAIA	ezgai / gai	N	BATEZ BESTEKOA	d.t.	t balioa	g.l.	ESANGURA
ZAPALTZAILEA	ezgai gai	18 74	2,22 1,61	1,2 1	2,065	23,141	$p = 0,05$
INPOSATZAILEA	ezgai gai	18 73	2,61 1,82	1,4 1,2	2,17	23,536	$p = 0,04$
ERRADIKALA	ezgai gai	18 72	2,56 2,01	1,5 1,3	1,404	23,688	--
BLOKEATUTA	ezgai gai	18 74	2 1,99	1,4 1,3	0,038	24,525	--
OTZANA (PASIBOA)	ezgai gai	17 74	1,67 2,11	1,2 1,2	-1,373	24,866	--
OLDARKORRA (AGRESIBOA)	ezgai gai	18 74	1,78 1,49	1,1 1	1,063	24,369	--
GUTXIESTEKOA (BAZTERTZAILEA)	ezgai gai	18 73	2,17 1,71	1,5 1	1,243	21,236	--

N: laginaren subjektu-kopurua
d.t.: desbideratze estandarra
T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoen diferentzietan dagokiena
g. l.: libere-tate-gradu
Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik $p \leq 0,06$ denean.

Lehen hipotesia, hizkuntza-portaera asertiboak portaera pasiboak eta oldarkorrek baino onarpen handiagoa duela dioena, baieztatu egin da.

“Lehen hitza euskaraz” leloa duten euskararen erabilera sustatzeko sortutako kanpaina ugari indartu egiten ditu ikerketa honek.

18. taula 3. Eszena: Adjektibo neutroa – euskaraz ezgai/euskaraz gai konparaketa

ADJEKTIBO ALDAGAIA	ezgai / gai	N	BATEZ BESTEKOA	d.t.	t balioa	g.l.	ESANGURA
NEUTROA	ezgai / gai	17 74	2 2,64	1,2 1,1	-2,047	22,491	p= 0,05

N: laginaren subjektu-kopurua
d.t.: desbideratze estandarra
T balioa: Student-en T balioa, batez bestekoaren diferentzietan dagoena
g. l.: libere-gradu
Oharra: p-ren balioak esanguratsuak izango dira bakarrik $p \leq 0,06$ denean.

Bigarren hipotesia ere berretsi egin da: gai subjektuek hobeto baloratu dute portaera asertiboak ezgaiak baino.

1. eta 2. eszenen artean estatistikoki ez dago desberdintasun esanguratsurik gai eta ezgai artean. 3. eszenan, ordea, bai; alde esanguratsuak ikus daitezke 6tik 5 adjektibo positibotan, 7tik 2 adjektibo negatibotan eta adjektibo neutroan.

4. ONDORIOAK

I

1. HIPOTESIA: HIZKUNTZA-PORTAERA ASERTIBOAK ONARPEN HANDIAGOA DU HIZKUNTZA-PORTAERA PASIBO EDO OLDARKORRAK BAINO

Lehen hipotesia, hizkuntza-portaera asertiboak portaera pasiboak eta oldarkorrek baino onarpen handiagoa duela dioena, baieztatu egin da.

Azterketaren arabera, ez dago esaterik euskaraz hitz egitea (hizkuntza mantentzea) ulertuko ez duen baten aurrean negatiboki baloratuko denik, ez eta irudi txarra ematea denik, nahiz eta uste hori egon baden. Are gehiago, jasotako emaitzen arabera, egindako ikerketak erakusten du behatzaileek positiboki baloratu dituztela, oro har, portaera pasibo edo lotsatia eta asertiboak; positiboago gerturatze asertiboak.

Azpitarratzekoa da, hala ere, portaera pasiboaren eta asertiboaren arteko desberdintasunek ez dutela esangura estatistikoa adjektibo guztietan; hau da, nahiz eta portaera asertiboak balio numerikoetan baloratuena izan, adjektibo batzuetan ez da frogatzera iritsi desberdintasun hori esanguratsua denik. Emaitza horien azterketa sakonagoa erronka interresgarria izan daiteke etorkizuneko ikerketetarako.

“Lehen hitza euskaraz” leloa duten euskararen erabilera sustatzeko sortutako kanpaina ugari indartu egiten ditu ikerketa honek. Bere erabilaren hautemate kualitatibotik harago, orain baieztatu genezake herritarren artean harrera ona duela elkarrizketak euskaraz hasteak, edozein dela ere solaskidearen hizkuntza-gaitasuna.

Horrenbestez, euskaraz ezgai den mintzakideak eta ingurune behatzaileak ekintza hori edukazio txarrekoat, errespetu faltatza e.a. interpreta lezakeen aurreiritzia desmuntatu da ebidentzia empiriko honekin. Emaitza hauek ikusita, euskaldunak, eta, oro har, hizkuntza gutxiagotuetao hiztunak eta portaera pasiboa daukaten euren hizkuntza gehiago eta seguruago erabiltzera animatu daitezke, beste hizkuntza bat erabili orde, epe luzera hizkuntzaren desagertzea ekarri ohi duen hizkuntza-ordezkapena bultzatu beharrean.

Portaera oldarkorra “ez dela erreala” esateak (egituratu gabeko elkarrizketetan) Euskal Herriko erreallitate soziolinguistikoa isla dezake: nagusitasunezko jarrerak ez dira erakusten euren hizkuntza gaztelaniarekiko nagusitasun-posizioan hautematen ez duten euskaldunen artean, eta elkarrizketatuek oso argi daukate 2. eszenan ikusten den gisako portaera oldarkorrek ez direla egunerokoan gertatzen.

2. HIPOTESIA: EUSKARAZ GAI DIRENEK POSITIBOAGO BALORATZEN DUTE HIZKUNTZA-PORTAERA ASERTIBOA EZGAI DIRENEK BAINO

Euskaraz ezgai diren pertsonen euskarazko edozein komunikazio areriotasunez hautematen dutela pentsatzeak onarpen kritikoa du (eta isilekoa hainbat mailatan), baina ikerketa honen emaitzek aditzera ematen dutenez, litekeena da hori erreallitatearekin bat ez etortzea. Oso esanguratsua da portaera asertiboa beste bi portaerak baino hobeto baloratu izana sistematikoki.

Interesgarria da portaera asertiboa portaera pasiboa baino hobeto baloratu izana; are gehiago, euskaldunen artean gehien ikusten dena pasiboa denean izana, sumisio linguistikoa gisa deskribatua izan dena. Nabarmentzekoa, era berean, lagin osoak hobeto baloratu duela, baita euskaraz ezgai direnek ere. Ez da harritzekoa izan euskaraz gai direnek hobeto baloratu izana. Azterketak, gainera, aditzera ematen du hizkuntza gaitasun egokia dutenen artean, ildo horretako portaerak sustatzeko aukera dagoela, justifikatzen ahalegin handirik egin beharrik gabe.

Horrenbestez, etorkizun handikoak dira ikerketa honetan jasotako emaitzak, euskararen erabileraren gaineko jarreraren eta horrekin lotutako komunikazio-portaeraren eragin diferentziala ebaluatzeo estrategia metodologiko bat garatzeko lehen saiakera diren heinean.

Interesgarria izango litzateke behatzea ezaugarri berdineko ikerketa batek zein emaitza lortuko litzuzkeen hizkuntza gutxiagotuetao beste herrialde batzuetan (Kurdistan, Herrialde Katalanak, Galizia, Britainia ...), batez ere, kontuan hartuta batzuek TELP metodologia bera jaso dutela

Euskaraz ezgai diren pertsonen euskarazko edozein komunikazio areriotasunez hautematen dutela pentsatzeak onarpen kritikoa du (eta isilekoa hainbat mailatan), baina ikerketa honen emaitzek aditzera ematen dutenez, litekeena da hori erreallitatearekin bat ez etortzea. Oso esanguratsua da portaera asertiboa beste bi portaerak baino hobeto baloratu izana sistematikoki.

Ildo bereko etorkizuneko ikerketek etekin handiagoa atera dezakete ebaluazio psikofisiologikoko tresnak erabilia. Esate baterako, jarduera elektrodermi-koen, kardiobaskularren edo garuneko enregistrazioen aparte leudekeen eta osagarriak liratekeen ebaluazioak egiteko aukera emango lukete. Izan ere, kontrol kontzientearen mende ez dauden portaeraren alderdiak erregistratzeko aukera emango lukete.

sumisio linguistikoa lantzeko, izan ere, hiztun hauen artean jarrera eta ezaugarri psikologiko antzekoak ikusten dira, hizkuntza dominantearekiko distantzia linguistikoa edozein dela ere.

Ildo bereko etorkizuneko ikerketek etekin handiagoa atera dezakete ebaluazio psikofisiologikoko tresnak erabilia. Esate baterako, jarduera elektrodermi-koen, kardiobaskularren edo garuneko enregistrazioen aparte leudekeen eta osagarriak liratekeen ebaluazioak egiteko aukera emango lukete. Izan ere, kontrol kontzientearen mende ez dauden portaeraren alderdiak erregistratzeko aukera emango lukete.

Nerbio-sistema autonomoaren mendeko erantzunak garuneko zenbait guneren aktibazioa aztertzeak, hainbat portaera ikustearekin batera unean-unean ematen diren erreakzioak (atseginezkoak eta ez atseginezkoak) frogatzen lagunduko ligukete.

Tresna horien bidez, subjektuak inkesta edo elkarrizketaren bidez transmititzen duen gogoetatik harago joango ginatete, izan ere, erantzuna desira sozialaren eraginpekoa izan daiteke.

Osagarri gisa, aurpegiko espresioaren bidez erantzun emozionalaren ebaluazio fidagarriak eskaintzeko gai den teknologia bada, eta, arrazoizko edozein zalantzaren gaintetik, eszena bakoitzaren benetako eragina finkatzen lagunduko luke. ●

OHARRAK

1. Badu-Bada: estres linguistikoa: <https://www.youtube.com/watch?v=eI0boWXqoIM>.
2. Euskaraz gai taldean sartu dira "erabat", "asko" eta "nahiko" baloratu dutenak.
3. Euskaraz ezgai taldean sartu dira "gutxi" eta "oso gutxi" baloratu dutenak.

BIBLIOGRAFIA

- APODAKA, E. (2013). Euskaraz jarduteko aktibazioa: ideia zenbait Psikologia Sozialetik. Udaltop.
- BANDURA, A. eta WALTERS, R. H. (1963). *Aprendizaje social y desarrollo de la personalidad*. Madril. Alianza Universidad.
- BANDURA, A. (1977). Social Learning Theory. *General Learning Press*.
- IRASTORZA J.(2010). Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendua garatzetik helburuak lortzera. Doktorego tesia. HUHEZI.
- JOAN I MARÍ, B. (2012). Autocentramiento y política lingüística: normalización y actitudes Udaltop.
- NARANJO, M. L. (2008). Relaciones interpersonales adecuadas mediante una comunicación y conducta asertivas. Universidad de Costa Rica.
- SANCHEZ, J.C. (2002). psicología de los grupos: teoría, procesos y aplicaciones. s.a. mcgraw-hill / interamericana de españa

Soziolinguistika Klusterra (2014). Datu soziolinguistikoen bilduma. Gipuzkoa. 1986-2011

SUAY I LERMA, F. eta SANGINÉS SÁIZ, G. (2005) Un espai per als parlants. Llengua i ús aldizkaria, 34. zk.a.

SUAY I LERMA, F. eta SANGINÉS SÁIZ, G. (2008). Hizkuntza-mendetasuna aztertzeko eta egoera horretan esku hartzeko eredu bat. In Bat soziolinguistika aldizkaria.69 alea. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

SUAY I LERMA, F. eta SANGINÉS SÁIZ, G. (2007). Hizkuntz mendekotasunezko portaeran eragiteko proposamena: ikuspegi psikologikoa. Motibazioa eta hizkuntza normalizazioa jardunaldia. Societat Valenciana de Psicologia.

VARELA, F. (2000). El fenómeno de la vida. Cuatro pautas para el futuro de las ciencias cognitivas.

ZARRAGA A., COYOS J.B., HERNÁNDEZ J.M., JOLY L., LARREA I., MARTINEZ L., URANGA, B. eta BILBAO P. (2010). Soziolinguistika eskuliburua. Soziolinguistika klusterra. Andoain.

Interneteko baliabideak

BADU BADA. EUSKARA MUNDU ELEANITZEAN (2012). Estres linguistikoa (<https://www.youtube.com/watch?v=el0boWXqoIM>)